



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

GIPUZKOAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ITSASKETA BAZKUNDEA

Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkude Ofizialaren Arbitraje-Estatutua eta Arbitraje-Arautegia.

AURKEZPENA

Enpresei zerbitzu bat eskaintzeko helburuz eta 1988ko Arbitraje Legeak eskainitako aukeraz baliatuz, zeinean berrikuntza gisa «erakundeen arbitrajearen» bidez aukera ematen aitziztaien zuzenbide publikoko Korporazioei arbitrajeak beren Arautegiaren arabera administratzeko eta arbitroak izendatzeko, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkude Ofizialak (aurrerantzean Gipuzkoako Bazkudea) Adiskidetze eta Arbitraje Zerbitzua sortu zuen, eta bere Arautegia eta Estatutua lantzeari ekin zion. Horiek biek 1989ko urriko Udal Batzarrean onetsi ziren.

Urte hauetan zehar, Gipuzkoako Bazkudeak xede bezala eduki du bere Arbitraje Gortea eten-bizi hobetu eta perfektionatzea, enpresentzako lehiakortasun tresna dela jakitun delako, era azkar, ekonomiko eta konfidentzial batean beraien gatazkak konpontzea errazten duelako. Zentzu honetan, Gipuzkoako Bazkudeak aldaketa desberdinak egin ditu bere Arbitraje Gortearen Arbitraje-Estatutu eta Arbitraje-Arautegian, azkenekoa 2011ko abenduan.

Lurraldeko operadore juridiko esanguratsuenekin sei hilabete baino gehiagoko hausnarketa prozesua gauzatu eta gero, Gipuzkoako Bazkudeak Arbitraje Gortearen Arbitraje-Estatutu eta Arbitraje-Arautegi berri bat onestea erabaki du, enpresa eta abokatu gipuzkoarren eskaerak jasotzearren.

Arbitraje Gortearen Arbitraje-Estatutu eta Arbitraje-Arautegi berriaren berritasun nagusia kautelazko neurriak *inaudita parte* eskatzeko premiazko prozedimendua ezartzea da, ohiko jurisdikzioaren eta inguruko arbitraje instituzioetatik desberdintasun faktorea izanik.

Nabarmengarria da ere arbitroen bateraezintasun kasuak sendotzea eta Batzorde Iraunkorriari gaitasuna ematea arbitroa errefusatzeko Batzorde Iraunkorriak ulertzen badu arbitroaren inpartzialitatea urratu dezaketen kausak existitzen direla.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Bestalde, Batzorde Iraunkorraren independentzia eta ospea finkatu dira alor juridikoko bi pertsona ospetsu integratuz (Gipuzkoako Merkataritza Erregistratzailea eta Zuzenbide Fakultateko Dekanoa).

Azpimarragarriak dira ere bai, bide elektronikoen aldeko apustua, prozesuaren zenbait alderdi administratiboen txukuntzea eta alderdien arteko akordioak errespetatzea arbitroen zenbakiaren inguruan eta hauek izendatzea espezializazio irizpideak erabiliz.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

AURKIBIDEA

ARBITRAJE-ESTATUTUA

ATARIKOA

1. ARTIKULUA ARBITRAJE GORTEA
2. ARTIKULUA. OSAERA
3. ARTIKULUA. BATZORDE IRAUNKORRA
4. ARTIKULUA. IDAZKARITZA
5. ARTIKULUA. KIDEAK
6. ARTIKULUA. EGINKIZUNAK
7. ARTIKULUA. ANTOLAMENDUA ETA DEIALDIAK
8. ARTIKULUA. ERABAKIAK
9. ARTIKULUA. KARGUEN IRAUPENA
10. ARTIKULUA. BATERAEZINTASUNAK
11. ARTIKULUA. PROTOKOLIZAZIOA

ARBITRAJE-ARAUTEGIA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. ARBITRAJE GORTEAZ
2. ARTIKULUA. ARBITRAJE GORTEARI MEN EGITEA
3. ARTIKULUA. ARBITRAJE-MOTAK
4. ARTIKULUA. ARAU APLIKAGARRIAK
5. ARTIKULUA. ARBITRAJEAREN EGOITZA ETA TOKIA
6. ARTIKULUA. ARBITRAJEAREN HIZKUNTZA
7. ARTIKULUA. ALDERDIEN HELBIDEA
8. ARTIKULUA. JAKINARAZPENA, KOMUNIKAZIOAK ETA EPE-ZENBAKETA
9. ARTIKULUA ARBITRAJE GORTEARI BIDALITAKO DOKUMENTAZIOA ETA KONFIDENTZIALTASUNA
10. ARTIKULUA. ARAUTEGIA INTERPRETATZEA



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

11. ARTIKULUA. ARBITRAJE-GASTUAK ARBITROAK
12. ARTIKULUA. ARBITROAK IZENDATZEA
13. ARTIKULUA. ARBITROAK ONARTZEA
14. ARTIKULUA. ABSTENTZIOA ETA ARBITROAK EZ ONARTZEA
15. ARTIKULUA. ERREFUSATZEKO PROZEDURA
16. ARTIKULUA. KARGUTIK KENTZEKO PROZEDURA
16. BIS ARTIKULUA. KENTZEAREN EFEKTUAK KAUTELAZKO NEURRIETAN
17. ARTIKULUA. ORDEZKO ARBITROA IZENDATZEA

ARBITROEN ESKUMENA

18. ARTIKULUA ARBITROEK BEREN ESKUMENAREN GAINEAN DUTEN AHALA
19. ARTIKULUA KAUTELAZKO NEURRIAK HARTZEKO ARBITROEK DUTEN AHALA ARBITRAJE-PROZEDURA
20. ARTIKULUA ARBITRAJEA HASTEA
20. BIS ARTIKULUA ARBITROEN IZENDATZEA *INAUDITA PARTE* KAUTELAZKO NEURRIAK ESKATZEN BADIRA
21. ARTIKULUA. DEMANDA
22. ARTIKULUA. DEMANDARI ERANTZUTEA
23. ARTIKULUA. KONTRADEMANDA
24. ARTIKULUA. AGERTZEA ETA FROGAK PROPOSATZEA
25. ARTIKULUA. ALDERDIEK JARDUERARIK EZ EGITEAREN ONDORIOAK
26. ARTIKULUA. PROZEDURAANTOLATZEA
27. ARTIKULUA. ALDERDIAK ORDEZKATU ETA DEFENDATZEA
28. ARTIKULUA. FROGAK
29. ARTIKULUA. LEKUKOAK
30. ARTIKULUA. PERITUAK
31. ARTIKULUA. ALDERDIEN ONDORIOAK ETA PROZEDURAREN AMAIERA LAUDOAK ERABAKITZEA
32. ARTIKULUA LAUDOAREN EPE, MODU, EDUKI ETA JAKINARAZPENA
33. ARTIKULUA LAUDOAK ALDERDIEN ADOSTASUNAREKIN
34. ARTIKULUA LAUDOAK ZUZENDU, ARGITU, OSATU ETA MUGA GAINDITZEA
35. ARTIKULUA. EZEZTATZEA, GAUZA EPAITUA ETA LAUDOAK BERRIKUSTEA



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

XEDAPEN IRAGANKORRA

AMAIERAKO XEDAPENAK

ARBITRAJEAREN KOSTUAK

ARBITRAJE-HITZARMENA

ARBITRAJE-HITZARMENA. SOZIJETATE BARRUKO EZTABAIDAK



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

ARBITRAJE ESTATUTUA

ATARIKOA.

Gipuzkoako Bazkondeak Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkunde Ofizialen martxoaren 22ko 3/1993 Oinarrizko Legeak esleitu zizkion arbitraje-eginkizunak bete izan ditu orain arte. Arbitrajeari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legeak, bere aurrekoaren urratsei jarraiki, eta aurrekoa erreformatzen duen maiatzaren 20ko 11/2011 Legeak, indartu egin dute Erakundeen Arbitrajea, eta horrela, Zuzenbide Publikoko Erakunde den aldetik, alderdiek Gipuzkoako Bazkundearen esku utz dezakete arbitrajearen administrazioa eta arbitroen izendapena, bertako Arautegiarekin bat etorritik.

1. ARTIKULUA.

Merkataritza-arbitrajeko eginkizunak betetzeko, nazio mailakoak nahiz nazioarte mailakoak izan, bere Arautegiarekin bat etorritik, Gipuzkoako Bazkundearen baitan Arbitraje Gortea eratu da, eta horren bitartez burutuko da beraren esku uzten diren arbitrajeen administrazioa.

2. ARTIKULUA.

Arbitraje Gortea ondorengo Organoek osatuko dute.

- Batzorde Iraunkorra.
- Idazkaritza.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

3. ARTIKULUA.

Batzorde Iraunkorra, Estatutuan eta Arautegian izendatzen zaizkion eginkizunekin bat etorriz, Arbitraje Gortearen menpe dauden arbitrajeen administrazioa eta zaintza egiten duen organoa da.

4. ARTIKULUA.

Idazkaritza Arbitraje Gortearen funtzionamendurako beharrezkoak diren gai guztien kudeaketaren ardura duen organoa da, eta halaber, Batzorde Iraunkorrak eta arbitroak ematen dizkieten jarraibide guztiak betetzeaz arduratzen da.

Idazkaritzaren buru eginez, Gipuzkoako Bazkundearen Batzarrak izendatutako Idazkari bat izango dugu.

5. ARTIKULUA.

Batzorde Iraunkorra honako kideek osatuko dute: Gipuzkoako Bazkundeko Lehendakaria edo honek aukeratutako Batzarreko kidea, bertako Idazkaria-Zuzendari Nagusia eta Batzarreko beste bi kide, Batzarrak berak izendatuak, eta halaber, Arbitraje Gorteko Idazkaria. Batzordeko kide izan daitezke Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuak izendatutako ordezkari bat, Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestuaren beste ordezkari bat, Gipuzkoako Herrialde Historikoan diharduten bere kideen artetik aukeratua, Euskal Herriko Unibertsitateko zuzenbide fakultateko dekanoa edo honek izendatutako ordezkari bat eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistratzailea.

Batzorde Iraunkorrak bere kideen artetik hautatuko ditu Presidente eta Presidenteordea, azken honen eginkizuna izango da Presidentearen ordezkari lanak egitea hura ez dagoenean edo gaixo dagoenean.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

6. ARTIKULUA.

Batzorde Iraunkorrek honako eginkizunak beteko ditu:

1. Arbitraje Gortearen menpe jartzen diren arbitraje-eskabideen izapide-lanak onartzea.
2. Arbitraje-prozeduraren garapenean laguntza eskaintzea eta arbitroek jakinaraz diezazkieketen gorabehera eta galdera guztiak erabakitzea.
3. Urtero arbitroen zerrenda bat egitea, Arbitraje Gortearen mende geratzen diren gorabeheretan jarduteko, lanbidean eta enpresan entzute handiko direnen artetik.
4. Arautegian ezarritakoarekin bat etorritik, arbitrajearen esku hartu behar duen edo duten arbitroak izendatzea eta bi segidako ordezkari arbitro ez onartze, inkompatibilitate eta errefusatzeko kasuetarako, eta halaber, ez onartzearekin eta kargutik kentzearekin loturik dagoen edozein gorabehera ebatzea.
5. Arbitrajea onartzeagatik eta administratzeagatik dagozkion eskubideak eta arbitroen ordainsariak onetsi eta, egoki bada, berrikustea.
6. Legeak araututako Erakundearen Arbitrajeak eragindako beste edozein eginkizun, baldin eta Arbitraje Gortearen Idazkaritzari ez badagozkio.

7. ARTIKULUA.

Batzorde Iraunkorrek bere funtzionamendu propioa antolatuko du bere eginkizunak eraginkortasunez betetzea ongien ziurtatuko duen moduan, eta eginkizun horiek betetzeko beharrezkoa den guztietan bilduko da.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Baliozkotzat hartuko da batzordea, behar bezala deituta egonik, kideen gehiengoa agertzen denean, bere kabuz edo batzordeko beste kide batek idatziz ordezkatuta.

Deialdia Arbitraje Gortearen Idazkariak egingo du eta bera arituko da bileretan, hitza izango du eta ez botorik, akta jasoz bertan hartzen diren erabakiak.

Deialdia posta elektronikoz bidez egingo da, batzordeko kide bakoitzari zuzenduta. Deialdia gutxienez zazpi eguneko aurrerapenarekin egin behar da, eta gai-zerrendako gaiak zeintzuk diren adieraziko da.

8. ARTIKULUA.

Batzorde Iraunkorrak erabakiak hartu ahal izango ditu 6. artikuluko 1, 4 eta 5. puntuei buruz, idatziz eta bilerarik gabe, Sekretarioak egiten den proposamenerako boto eskaria eginez, batzordeko kideei helaraziz posta elektronikoz, botoa eman dezaten jaso eta hurrengo bi egunetan modu berdinean, *inaudita parte* kautelazko neurriak eskatzen badira, Arbitraje-Arautegian ezarritako epeak beteko dira.

Batzorde Iraunkorraren erabakiak baliozko botoen gehiengo soilaz hartuko dira, boto zuriak kontuan hartu gabe. Gipuzkoako Bazkundearen Batzorde Iraunkorreko Lehendakariak boto erabakitzailea izango du berdinketa gertatuz gero.

Batzorde Iraunkorrak instantzia bakarrean erabakiko du Estatutu eta Arautegi honetan esleituak dituen eginkizunak gauzatzearekin loturik bere esku dauden gai guztien inguruan. Batzorde Iraunkorraren baitan hartutako erabakiek eta eztabaidek isilpeko izaera dute.

9. ARTIKULUA.

Batzorde Iraunkorreko karguen iraupena lau urtekoa izango da, eta horien izendapena behin edo gehiagotan berritu ahal izango da gehienezko iraupen bera duten epealdietarako.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Hutsuneren bat gertatuz gero, Arbitraje Gorteko Idazkariak Gipuzkoako Bazkundeari jakinaraziko dio, Estatutu honetan ezarritako moduan bete dadin.

10. ARTIKULUA.

Arbitrajearen menpe geratu den gai horretan interesen bat duen Batzorde Iraunkorreko edozein kide eztabaida horri eragiten dioten erabaki guztietan parte hartzeko bateraezintasunprintzipioari atxikita geratuko da.

11. ARTIKULUA.

Estatutu hau Arbitraje Arautegiaren agiri osagarri bat da, eta alde horretatik, Notarioaren aurrean protokolizatuko da harekin batera.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

ARBITRAJE-ARAUTEGIA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. ARBITRAJE GORTEA.

Gipuzkoako Bazkundeko Arbitraje Gortek zuzenbidez edo berdintasunez administratuko ditu beraren esku uzten diren arbitrajeak, bai nazio mailakoak eta bai nazioarte mailakoak ere, Arautegi honetan xedatutakoaren arabera, eta aurreikusi gabeko alderdietan, Arbitrajearen Legeak edo hori ordezkatzan duten xedapenek ezarritakoaren arabera.

2. ARTIKULUA. ARBITRAJE GORTEARI MEN EGITEA.

1. Kontratuzko edo ez-kontratuzko harreman jakin batengatik sortu diren edo sor litezkeen eztabaida guztiak edo horietako batzuk Gipuzkoako Bazkundearen arbitrajearen menpe jartzeko alderdien borondatea adierazten duen arbitraje-hitzarmen baten arabera Arbitraje Gorteari men egiten zaionean men-egite hori gauzatu dela joko da. Arbitraje-hitzarmenik ez badago, menegite hori alderdien arteko adostasun bidez gauzatu da, Arbitraje Gortearen aurrean idatziz egin ondoren.

2. Arbitraje-hitzarmenak behartu egiten ditu alderdiak itundutakoa betetzera, eta Arbitraje Gorteari men egin beharra dakar. Honek baztertu egingo du jarduerari hasiera ematea, baldin eta egiaztatzen bada "prima facie" borondateen adostasunik ez dagoela, edo baldin eta arbitrajearen administrazioa Gortearen esku uzten ez duen hitzarmen bat badago. Idazkaritzak alderdi eskatzaileari adieraziko dio arbitrajea egiteko hasierako eskaria onartzen duen ala ez.

3. Alderdiak Arbitraje Gorteari men egiteak esan nahi du hark baduela arbitrajea onartzeko eta arbitroak izendatzeko eskumena, Arautegi honetan aurreikusitako hitzetan.

4. Arbitraje Gortek bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion informazioak eskatu ahal izango dizkie alderdiei.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

3. ARTIKULUA. ARBITRAJE-MOTAK.

1. Arbitroek zuzenbideari edo berdintasunari erreparatuz erabakiko dute eztabaida.
2. Alderdiek ez badute berariaz berdintasunaren aukera horren alde egiten, arbitrajea zuzenbidez erabakiko da.

4. ARTIKULUA. ARAU APLIKAGARRIAK.

Arbitrajea zuzenbidezkoa denean, arbitroak edo arbitroek eztabaida horretan aplikagarri iruditzen zaizkien arau juridikoak finkatuko dituzte, kontuan izanik, edonola ere, kontratuaren baldintzak eta erabilera aplikagarriak.

Alderdiek erregimen juridiko berezi bat aplikatzea aukeratu bazuten bakar-bakarrik men egingo zaio horri, betiere arbitrajearen menpe jarri den gai horrekin loturaren bat baldin badu.

5. ARTIKULUA. ARBITRAJEAREN EGOITZA ETA TOKIA.

1. Arbitraje Gortearen egoitza Gipuzkoako Bazkundearen egoitzan kokatua dago.
2. Arbitraje-prozedura Gortearen egoitzan edo arbitroek erabakitzen duten tokian gauzatuko da. Nolanahi ere, arbitroek leku horretatik kanpora zenbait jarduera egitea erabaki ahal izango dute arbitrajea burutzeko komenigarria dela irizten baldin badiote.

6. ARTIKULUA. ARBITRAJEAREN HIZKUNTZA.

Arbitrajea egiteko erabiliko den hizkuntza gaztelania edo euskara izango da.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Nazioarte mailako arbitraje bat izanez gero, ingelesez edo frantsesez egin ahal izango da, eta auzilariek ordainduko dute itzulpena, hau beharrezkoa bada.

7. ARTIKULUA. ALDERDIEN HELBIDEA.

Arbitrajean esku hartzen duten alderdiek helbide fisiko eta elektronikoko bat izendatu behar dute jakinarazpenak jasotzeko. Hori ez badago, helbidetzat hartuko da pertsona interesatuarena edo honen ordezkariarena, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, erregistro publikoetan agertzen dena behar bezain ezagun gertatzen ez denean.

8. ARTIKULUA. JAKINARAZPENA, KOMUNIKAZIOAK ETA EPE-ZENBAKETA.

1. Alderdi, arbitro eta Idazkaritzaren arteko jakinarazpen eta komunikazioak lehenetsunez bide elektronikoen bidez egingo dira, Gipuzkoako Bazkundearen Arbitraje Gorteak ezartzen duen aplikazio informatikoaren bidez, jakinarazpenen eta/edo komunikazioen jasotzea eta beraien konfidentziaztasuna bermatuko dituenak, edo honen ezean, posta elektronikoz. Halaber, egoera justifikatuak barne, pertsonalki, mezulariz, telex, fax edo beste edozein telekomunikazio-bide elektronikoko, telematikoko edo beste era bateko baten bidez egindako jakinarazpena edo komunikazioa ere baliozkoa izango da, baldin eta idazkiak eta agiriak bidali eta jasotzean horiek bidali eta jaso izanaren frogak geratu dadila ahalbidetzen badu, eta interesatuak horretarako izendatu baditu.

2. Edozein jakinarazpen edo komunikazio jasotzeko joko da elektronikoki, edo pertsonalki hartzaileari ematen zaion egunean edo bere etxebizitzara, ohiko egoitzara, establezimendura edo helbidera eramaten denean. Zentzuzko ikerketa egin ondoren leku horietako bakar bat ere aurkitzen ez bada, ezaguna den hartzailearen azken etxebizitzan, ohiko egoitzan, establezimenduan edo helbidean posta ziurtatu bidez edo frogak uzten duen beste edozein bitartekoren bidez eraman edo eramaten ahalegindu den egunean jasotzeko joko da.

3. Arautegi honetan ezarritako epeak jakinarazpena edo komunikazioa jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasiko dira. Epe horren barruan idazki bat aurkeztu beharra baldin badago,



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

epe hori betetzakotzat joko da baldin eta egiaztatzen bada idazkia epe horren barruan bidali dela, nahiz eta jaso beranduago jaso litekeen.

4. Egunka ezarritako epe horiek lanegunka zenbatuko dira, hau da, larunbata, igande eta jai egunak kenduta, gainera lan ez egitekoa izango da abuztuko hilabetea, Laudoa emateko eperako ere, eta ez dago graziako egunik.

5. Alderdiek eta arbitroek Arbitraje Gortearekin dituzten komunikazioak, eta azken horrek alderdiekin eta arbitroekin dituenak, Idazkaritzaren bitartez egingo dira, eta deusezak izango dira Arbitraje Zerbitzuko Gortearen esku-hartzerik gabe egiten diren guztiak.

9. ARTIKULUA. ARBITRAJE GORTEARI BIDALITAKO DOKUMENTAZIOA ETA KONFIDENTZIALTASUNA.

1. Dokumentuak ez badira elektronikoki aurkezten, Alderdiek Gorteko Idazkaritzan aurkezten duten espedientearen parte izango diren idazki eta dokumentazio guztien artetik, alderdi adina kopia aurkeztu beharko dira, eta arbitro bakoitzeko beste bat gehiago, eta jatorrizkoak Gorteko Idazkaritzan geratuko dira.

2. Espedienteen gehienezko artxibatze-epea bi urtekoa izango da behin-betiko laudoa ematen denetik hasita.

3. Alderdiek, arbitroak, Batzorde Iraunkorrek eta Idazkaritzak ezagutzen dituzten dokumentu eta informazio guztiak, prozesuaren existentzia barne, konfidentzialak izango dira. Arbitrajearen parte hartzen duen edozeinek, parte hartze soilarekin bere burua behartzen da konfidentzialtasun hori gorde eta informazio edo/eta dokumentazio hori prozesua ez den beste edozein helburuetarako ez erabiltzea.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

10. ARTIKULUA. ARAUTEGIA INTERPRETATZEA.

Arautegi honen interpretazioaren eta aplikazioaren inguruan sortzen diren zalantza guztiak, kasu zehatz bakoitzean, arbitroek ebaztuko dituzte, eta arbitro horiek Arbitraje Gortearen iritzia eskatu ahal izango dute. Nolanahi ere, audientzia, kontraesankortasun eta berdintasunaren printzipioak errespetatu beharko dira.

11. ARTIKULUA. ARBITRAJE-GASTUAK.

1. Arbitraje-eskabide bat egiten duenak indarrean dauden onarpen-eskubideei dagokien diru-sarreraren egiaztagiria aurkeztu beharko du, eztabaidaren zenbatekoa zein den kontuan izan gabe.

Eskatzaileak ez badu diru-sarreraren egiaztagiririk aurkezten, Gorteak hori ordaintzeko eskatuko dio arbitrajea hasi baino lehen.

2. Batzorde Iraunkorrek eskabide hori onartu ondoren, dagozkien demanda eta erantzunak aurkeztearekin batera ordaindu beharreko administrazio-eskubideak eta arbitroen ordainsaria jakinaraziko die Gorteak alderdiei, , biak ere beren eskala eta aplikazio arauen arabera kalkulatuak, eta horiek, Arautegi honen parte dira eta Gorteak aldizka berrikusi ahal izango ditu.

Gorteak ez du izapidetuko ez demanda eta ez erantzuna ere, baldin eta horiekin batera ez badira aurkezten administrazio-eskubideen eta arbitroen ordainsariaren ordaintzaren frogagiriak.

3. Alderdietakoren batek ez baditu ordaintzen administrazio-eskubideak eta arbitroen ordainsaria, arbitroek arbitraje-jarduera horiek atzeratu edo amaitutzat eman ahal izango dituzte. Epearen barruan alderdi horrek ez badu berari dagozkion administrazio-eskubideak eta arbitroen ordainsaria ordaintzen, arbitroek, jarduerak atzeratzea edo amaitutzat ematea erabaki baino lehen, gainerako alderdiei jakinaraziko diete, finkatuko zaien epearen barruan horiek ordaintzeko gogorik baldin balute.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Horniketa horien ondorioz sortzen diren zorren itzulketak eskubidea emango du arbitrajean esku hartzen duten alderdiek elkarren zordun diren kopuruak batak besteari erreklamatzeko, eta laudoan jasota geratu beharko du horrek.

4. Ez da inolako probarik egingo, baldin eta hori eskatu duen alderdiak ez badu aurrez estaltzen edo bermatzen horren kostua.

ARBITROAK

12. ARTIKULUA. ARBITROAK IZENDATZEA.

1. Alderdiek ez balute arbitroen kopurua finkatu, Batzorde Iraunkorrek erabakiko du ea arbitro bakarra izendatu behar den edo eta hiru kidek osatutako elkargo arbitral bat eratzea komeni den.

2. Eskuarki, Batzorde Iraunkorrek erabakiko du arbitro bakarra izendatzea, baldin eta kasuaren zailtasunak edo gatazkan dagoen diruaren kopuruak ez badu justifikatzen hiru arbitroen izendatzea.

3. Batzorde Iraunkorrek arbitroak izendatuko ditu gatazkarekiko espezializazio juridiko-teknikoan oinarriturik.

13. ARTIKULUA. ARBITROAK ONARTZEA.

Izendatutako arbitroek Arbitraje Gorteko Idazkaritzari jakinarazi beharko diote onartu egiten dutela zortzi eguneko epean, izendapenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 20.bis Artikuluan esandakoaren kalterik gabe. Ezarritako epean ez badute jakinarazten onartzen dutenik, ulertuko da ez dutela onartzen beren izendapena. Onarpen



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

horren bidez, arbitroak konpromisoa hartzen du eta bere burua behartzen du arbitrajea Arautegiaren arabera ebaztera.

14. ARTIKULUA. ABSTENTZIOA ETA ARBITROAK EZ ONARTZEA.

1. Arbitro guztiek independente eta inpartzial izan eta hala irauten behar dute arbitrajeak irauten duen bitartean. Nolanahi ere, ezingo dute alderdiekin inolako harreman pertsonalik, profesionalik edo merkataritza mailakorik izan azken hiru urteen epean.

2. Arbitro izateko proposatutako pertsonak Arbitraje Gorteari jakinarazi behar dizkio bere inpartzialtasuna eta independentzia zalantzan jar dezaketen egoera guztiak. Arbitroak, izendatzen direnez geroztik, alderdiei eta Gorteari jakinaraziko diete gerora gertatu ahal izan den edozein gorabehera, inola ere berandutu gabe.

3. Arbitro bat bakarrik errefusatu ahal izango da Batzorde Iraunkorraren iritziz zentzuzki inpartzialtasuna edo independentzia zalantzan jarri ditzazketen xehetasunak biltzen badira .

15. ARTIKULUA. ERREFUSATZEKO PROZEDURA.

1. Arbitro bat errefusatzen duen alderdiak idatziz azalduko ditu Batzorde Iraunkorraren aurrean horretarako arrazoiak, onartu izana jakin eta handik hamabost egunen barruan, eta halaber, haren inpartzialtasuna edo independentzia zalantzan jar dezakeen beste edozein xehetasun. Errefusatutako arbitro horrek bere karguari uko egiten ez baldin badio, edo beste alderdiak errefusatzeko hori onartzen ez badu, Batzorde Iraunkorrek erabaki beharko du horren inguruan.

2. Proposatutako errefusatzeko horrek aurrera egiten ez badu, errekurtsioa egin duen alderdiak, egoki izanez gero, errefusatzeko hori ontzat eman dezake, laudoaren aurka eginez.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

16. ARTIKULUA. KARGUTIK KENTZEKO PROZEDURA.

Arbitro bat ezinduta aurkitzen bada izatez edo eskubidez bere eginkizunak betetzeko, edo zentzuzko epe baten barruan arrazoi batengatik edo beste batengatik horiek gauzatzen ez baditu, bere kargua utzi beharko du, baldin eta uko egiten badio edo Batzorde Iraunkorrek kargutik kentzea erabakitzen badu.

16. BIS ARTIKULUA. KENTZEAREN EFEKTUAK KAUTELAZKO NEURRIETAN

Arbitroaren abstentzioa, errefusapena edo eta kentzea ematen bada, harrek erabakitako kautelazko neurriak efekturik gabe geldituko dira.

Kasu honetan, alderdi batek eskatzen badu, Batzorde Iraunkorrek beste arbitro bat izendatu beharko du 7 egunen epean, arbitro berri honek erabaki dezan alderdiek eskaturiko kautelazko neurriak onartzen dituen epe horretan.

17. ARTIKULUA. ORDEZKO ARBITROA IZENDATZEA.

1. Arbitro berri bat izendatzeko arrazoia edozein izanik ere, ordezkatua izendatzeko prozedura arautzen duten arauen arabera egingo da betiere.

2. Ordezkoa izendatu ondoren, alderdiei entzun eta gero, lehendik eginda dauden jarduketa batzuk errepikatu beharra dagoen ala ez erabakiko da.

ARBITROEN ESKUMENA

18. ARTIKULUA. ARBITROEK BEREN ESKUMENAREN GAINEAN DUTEN AHALMENA.

Arbitroek ahalmena izango dute beren eskumenaren gainean erabakitzeko, baita arbitraje-hitzarmenik badagoen edo horren baliotasunaren inguruan egon litezkeen salbuespenei buruz



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

ere, edo baita ere eztabaidaren muinean sartzea eragozten duen beste edozein neurriren inguruan. Aipatutako salbuespen horiei, beranduenez ere, erantzuna aurkezteko unean egin ahal izango zaie aurka.

Helburu horri begira, kontratu baten parte den arbitrajehitzarmena haren gainerako baldintzekin zerikusirik ez duen erabakitzat hartuko da.

19. ARTIKULUA. KAUTELAZKO NEURRIAK HARTZEKO ARBITROEK DUTEN AHALMENA.

1. Arbitroek, edozein alderdik hala eskatzen badu, eztabaidaren xede den horri buruz beharrezkoak iruditzen zaizkien kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte baldin eta arbitraje hitzarmenean edo alderdien arteko beste hitzarmen batean hau debekaturik ez badago. Arbitroek kauzio nahikoa eskatu ahal izango diote eskatzaileari.

2. Arbitroek *inaudita parte* ezarri ahal izango dituzte kautelazko neurriak arbitraje eskabidean hori eskatu baldin bada Arbitraje-Arautegi honetan erregulatzen den moduan.

3. Alderdiek ulertzen badute kautelazko neurriak ezartzea eragin zituzten egoerak aldatu egin direla, edo eta ez balituzte kautelazko neurriak eskatu ez *inaudita parte* eta ezta ere demandan, edozein momentutan eska dezakete kautelazko neurriak ezartzea, aldatzea edo kentzea, gertaera berrietan oinarriturik. Eskakizun honen inguruan arbitroak izango dute erabakia, behin beste alderdia entzunda.

4. Kautelazko neurriei buruz arbitroek hartzen dituzten erabakietan, horien forma edozein izanik ere, laudoak ezabatzeari eta nahitaez gauzatzeari buruz Legeak aurreikusitako arauak aplikatuko dira.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

ARBITRAJE-PROZEDURA

20. ARTIKULUA. ARBITRAJEA HASTEA.

1. Gortearen arbitrajera jo nahi duen alderdiak bere eskabidea bertako Idazkaritzara bidali beharko du, eta horrekin batera, onarpen-eskubideei dagokien diru-sarreraren egiaztatgia aurkeztu beharko du.

2. Eskabide horretan honako xehetasun hauek jaso behar dira:

- a) Izen-abizenak, sozietatearen izena, I.F.Z., alderdien helbidea edo Jakinarazpenetarako helbidea eta, egoki izanez gero, eskatzailearen izenean diharduen ordezkaritza.
- b) Kontratu edo arbitraje-hitzarmena, kontratuan halakorik ez baldin badago.
- c) Arbitrajearen menpe jartzen den eztabaida-gaiaren azalpen laburra, alderdi eskatzaileak dituen asmoak ere adieraziz, eta zenbatekoa ere aipatuz, zehatza izango balitz.
- d) Arbitro kopuruari eta arbitraje motari buruzko proposamena.
- e) *Inaudita parte* kautelazko neurrien eskakizuna, dagokion moduan justifikatuta, eskatzen badira.

3. Gorteak arbitraje-eskabidea jakinaraziko dio beste alderdiari, bost eguneko epearen barruan arbitraje-eskabidearen inguruan bere iritzia eman dezan.

4. Adierazitako epea igaro ondoren, beste alderdiak bere iritzia azaldu ala ez, Idazkaritzak Batzorde Iraunkorraren esku utziko du egindako eskabidea, hark erabaki dezan.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

5. Batzorde Iraunkorrek eskabide hori onartzen baldin badu, arbitraje-mota finkatu eta arbitroak izendatuko ditu, eta izendapen horren berri emango die, ahalik eta denbora-tarte laburrenean.

20 BIS ARTIKULUA. ARBITROEN IZENDATZEA INAUDITA PARTE KAUTELAZKO NEURRIAK ESKATZEN BADIRA

Arbitraje eskabideak *inaudita parte* kautelazko neurriak ezartzeko eskakizuna baldin badu, Batzorde Iraunkorrek jasotzen duenetik 48 orduko epean aztertuko du. Batzorde Iraunkorrek arbitraje eskabidea onartzen baldin badu, esandako epean arbitraje mota ezarriko du eta arbitroak izendatuko ditu, hauek gehienik izendapenaren komunikazioa jasotzen dutenetik zazpi eguneko epean izendapena onartu eta *inaudita parte* kautelazko neurrien eskakizunari buruz erabakitzeke baldintzarekin.

Arbitroen erabakia kautelazko neurriari buruz beste alderdiari komunikatuko zaio 20.3 artikuluan ezarritako tramiteak betetzeko.

Arbitroak *inaudita parte* kautelazko neurriak adosten baditu, neurri horiek ezarri zaizkion alderdiak, arbitrajearen hasieraren inguruko iritzia ematen duenean, erabakitako kautelazko neurrien aurkako oposamena, aldaketa edo ordezkoko kauzioa eskaini ditzake baita ere.

Kasu honetan, arbitroak 5 eguneko epea emango dio kautelazko neurriak eskatu zituen alderdiari, zuzenbidean dagokiona arrazoitzeko eta 7 egunen epean erabakiko du ea eskatutako kautelazko neurriak mantendu edo aldatzen dituen.

21. ARTIKULUA. DEMANDA.

1. Kargu hori onartu ondoren, eta inaudita parte kautelazko neurriak eskatu ez badira, arbitroek arbitraje-prozedurari ekingo diote, eta alderdi eskatzaileari horren berri emango diote, bere demanda aurkez dezan, jakinarazpenaren hurrengo hamabost egunen barruan.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

2. Demanda horrek gertaeren azalpena eta alderdi demanda-jartzailearen asmoak zein arrazoitan oinarritzen diren jaso beharko du eta kautelazko neurrien eskakizuna, neurri hauek eskatzen badira eta *inaudita parte* ez balira eskatu.

Demandak ezingo du jaso, ez bada 19.3. artikuluan aurreikusitako egoera ematen, aldeztatik arbitroak errefusatutako *inaudita parte* kautelazko neurrien eskakizun bat

Demanda horrekin batera, halaber, gertaera horiek frogatzeko alderdi horrek egoki irizten dien agiri publiko nahiz pribatuak, diktamenak edo perituen txostenak aurkeztu beharko dira.

Administrazio-eskubideak eta arbitroen ordainsariaren ordainketa ere egiaztatu beharko da.

3. Demanda jaso ondoren, Gorteko Idazkaritzak horren eta eranskinen kopia bana bidaliko dio alderdi demandatuari.

Demanda ez bada aurkezten esandako epean, *inaudita parte* erabakitako kautelazko neurriak efekturik gabe geratuko lirateke.

22. ARTIKULUA. DEMANDARI ERANTZUTEA.

1. Demandaren berri eman ondoren, alderdi demandatuak hamabost eguneko epea izango du horri erantzuteko, beharrezkoa iruditzen zaiona alegatuz bere interesak hobeto defendatzeko, eta Administrazio-eskubideak eta arbitroen ordainsaria ordainduizana egiaztatu beharko da.

2. Demanda jaso ondoren, Gorteko Idazkaritzak horren eta eranskinen kopia bana bidaliko dio alderdi demandatuari.

3. Demandari erantzunik ez ematea ez da oztopo arbitraje prozedura horri jarraipena emateko. Aurrera egingo du, alderdi demandatua auzi-iheslari denean.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

23. ARTIKULUA. KONTRADEMANDA.

1. Alderdi demandatuak, kontrademanda jarri nahi izanez gero, bere erantzunarekin batera aurkeztu beharko du.
2. Kontrademanda horren berri emango zaio kontrademandatutako alderdiari, horri erantzun diezaion, egoki dela irudituz gero, zortzi eguneko epean.

24. ARTIKULUA. AGERTZEA ETA FROGAK PROPOSATZEA.

Demandari eta, egoki izanez gero, baita kontrademanda horri ere erantzun ondoren, edota demandari edo kontrademandari erantzuteko epeak igaro ondoren, arbitroek gutxienez zortzi eguneko epean alderdiei dei egingo diete bertara daitezen.

Bertan, arbitroek egiaztatuko dute eztabaidak oraindik irauten duen, adostasun batera iritsi diren edo bat etortzea litekeen gauza den.

Bat etortze hori gertatuko balitz, arbitroek laudoa emango dute, hori jasoz.

Agertzeko egintzan alderdiek ezin izango dute helegite osagarririk egin, salbu eta demandaren edo erantzunaren ostean gertaera garrantzizko bat gertatuko balitz alderdien nahiak sostengatzeko edo alderdiei iritsi bazaie lehenagoko antzerako baten berri. Agertzeko egintzan alderdiek dokumentu eta irizpenak ager ditzakete, helegite horien araberakoak. Arbitroak alderdiei eska dakieke behar diren argitze edo zehaztapenak egiteko, demanda edo erantzuneko idatzietan dauden egintza edo argudioei buruz, eta arbitrajearen zenbatekoari buruz, kontzeptu guztiengatik erreklamaturako kopuruen edo eskatutako kalte-ordainaren zenbateko maximoa jartzeko. Bat etortzerik ez badago, egintza horretan bertan edo hurrengo hiru eguneko epean, alderdiek erabili nahi dituzten froga-bitarteko guztiak proposatuko dituzte.

Arbitroek, agertzeko egintzan bertan edo, aukeran, froga proposamena egin eta hurrengo bost egunetan, idatzizko ebazpen bidez, proposatuko froga-bitarteko horiek onartu edo ezetsi



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

egingo dituzte, bidezkoak iruditzen ez bazaizkie, geroko errekurtsorako aukerarik gabe, eta hori gauzatzeko epealdia zabalduko dute hogei eguneko gehieneko tarte batez; epea amaitutzat eman daiteke aurretik, onartutako froga guztiak eginda badaude.

Arrazoi objektibo eta behar hainbat justifikatuengatik, epe hori gehiago zabaldu ahal izango dute.

25. ARTIKULUA. ALDERDIEK JARDUERARIK EZ EGITEAREN ONDORIOAK.

Alderdiek jarduerarik ez egitearen ondorioak hauek izango dira:

- a) Alderdi demanda-jartzaileak ez badu bere demanda dagokion epean aurkezten, arbitroek amaitutzat emango dituzte jarduerak, salbu eta, alderdi demandatuari entzunik, hark beste asmo bat gauzatzeko borondatea agertzen ez badu.
- b) Alderdi demandatuak ez badu bere erantzuna dagokion epean aurkezten, arbitroek jarduerak egiten jarraituko dute hura auzi-iheslari deklaraturata, baina ez-erantzute hori ez da hartuko alderdi demanda-jartzaileak alegatutako gertaerak onartu direnik edo konpondu direnik.
- c) Alderdietako bat ez bada jarduera arbitral batera aurkezten edo ez badu frogarik aurkezten, arbitroek beren jarduerekin jarraitu ahal izango dute eta laudoa eman, eskuartean dituzten frogetan oinarrituz.

26. ARTIKULUA. PROZEDURA ANTOLATZEA.

1. Prozeduraren garapenean arbitroak ez daude epe jakin batzuetara loturik, betiere laudoa xedatzeko legez ezarritako sei hilabeteko epe horren kalterik gabe.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

2. Arautegi honetan finkatutako epeak horiek izanik ere, arbitroek, egoki irizten baldin badiote, bertan jasota ez dauden epeak ezarri ahal izango dituzte, beti ere zabalduz, eta sekula ez murriztuz, erregelamenduan adierazitakoak.

27. ARTIKULUA. ALDERDIAK ORDEZKATU ETA DEFENDATZEA.

Alderdiak beren kasa edo behar bezala kreditatuta dauden ordezkarien bidez aurkez daitezke prozedura horretara.

Jardunean ari diren abokatuen laguntza izan dezakete alderdiek; haien izendapena idatziz jaso behar da, eta laguntzen duten alderdiaren ordezkarietat hartuko dira, arbitraje-prozeduran gertatzen diren jakinarazpen, zitazio eta errekerimendu guztietarako.

Letraduak alderdi bati laguntzeari uko egiten badiu, horrek ez du etengo prozedura, eta beraz aurrera egingo du, alderdi interesdunak beste letradu bat edukitzeko duen eskubideari kalterik egin gabe. Baina, ez da onartuko alderdi baten nahiz bestearen letradunaren ukoa, izendatu zuen alderdiari uko egiten dion idatzizko jakinarazpena kreditatu arte.

28. ARTIKULUA. FROGAK.

1. Alderdi bakoitzaren ardura izango da oinarritzat hartu dituen gertaerak frogatzea, bere ekintzak edo defentsa egiteko, horretarako egoki iruditzen zaizkion froga-bitartekoak proposatuz.

2. Arbitroek, alderdi batek eskaturik edo beren ekimenez, egoki eta onargarri iruditzen zaizkien frogak egingo dituzte, eta behar hainbateko aurrerapenez deitu beharko diete alderdiei.

29. ARTIKULUA. LEKUKOAK.

1. Lekukoen frogarik eginez gero, aurkeztu nahi diren lekukoen izenak eta helbideak jakinaraziko ditu alderdi bakoitzak, eta beharturik dago aitortpena egiteko finkatutako unean lekukoa aurkeztera.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

2. Arbitroak libre dira erabakitzeko nola egin behar zaien lekukoei galdeketa.

30. ARTIKULUA. PERITUAK.

1. Arbitroek, ofizioz edo alderdi batek hala eskaturik, peritu bat edo gehiago izendatu ahal izango dituzte, baita horien eginkizunak finkatu, eta horien txostenak eta azalpenak entzun ere, alderdiak bertan daudelarik. Arbitroak perituen izendapenean alderdiek horren inguruan adostutakoa kontutan hartuko dute. Arbitroek izendatutako perituaren ordainsaria bi alderdiek ordaindu behar dute, perituaren ordainsari eta horniduren inguruko eskakizunak alderdiek hamabost eguneko epean betez, kostuei buruz azkenean xedatuko denari kalterik egin gabe. Alderdi batek edo alderdi guztiek ez badituzte perituak egindako eskakizun horiek betetzen behar den moduan eta epean, arbitroak 11.3 artikuluan aurreikusitako neurriak adostu ditzake.

2. Alderdiak behartuta daude perituari informazio egoki guztia eskaintzera, hark bere diktamena egin dezan, eta bide batez, lana erraztuko diote.

3. Alderdi batek eskatzen duenean edo arbitroek beharrezko ikusten dutenean, peritu guztiek, beren diktamena aurkeztu ondoren, audientzia batera joan beharko dute, eta bai arbitroek eta bai alderdiek ere galdeketa egin ahal izango diete.

31. ARTIKULUA. ALDERDIEN ONDORIOAK ETA PROZEDURAREN AMAIERA.

1. Froga-aldi hori amaitu ondoren, edo bertaratu ondoren, horrelakorik erabaki ez bada, arbitroek hamar eguneko epea finkatuko dute alderdientzat, beren ondorioak idatziz aurkeztu ditzaten.

2. Ondorioak aurkeztu ondoren, arbitroek prozedura amaitutzat joko dute.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

3. Arbitroek, salbuespen modura, laudoa xedatzeko epearen barruan, eztabaida hori hobeto ezagutzeko beharrezkoa irizten dioten beste edozein froga egitea erabaki ahal izango dute, hori egiteko arrazoiak zein diren azalduz.

LAUDOAREN ERABAKITZEA

32. ARTIKULUA. LAUDOAREN EPE, MODU, EDUKI ETA JAKINARAZPENA.

1. Arbitroek ebatziko dute eztabaida, laudo bakarrean edo beharrezkoak iruditzen zaizkien hainbat laudo partzialetan.

2. Arbitroek sei hilabeteko epearen barruan ebatzi beharko dute eztabaida hori, alderdi demandatuak bere erantzuna aurkezten duenetik kontaktzen hasita, beti ere abuztuko hilabetea kenduta. Epe hori luzatu ahal izango dute arbitroek, bi hilabetekoa baino luzeagoa izango ez den tarte batez, arrazoitutako erabaki baten bidez. Epea bukatuta behin-betiko laudoa emanda ez badago, emandako laudoaren balioari ez dio eragingo.

3. Laudoak arrazoitua izan behar du beti, laudoa aldeek hitzartutako eran eman denean izan ezik, idatziz agertu behar du eta arbitroek sinatua egon behar du, baina arbitroek horren aldeko edo aurkako botoa adieraz dezakete. Arbitro bat baino gehiago daudenean, aski izango da elkargo arbitraleko kideen gehiengoaren sinadura, edo bertako Lehendakariarena bakarrik, sinadura bat edo gehiago ez egoteko arrazoiak azalduz gero, betiere.

4. Laudoan agertuko da zein egunetan xedatu den eta zein tokitan egin den arbitrajea.

5. Arbitroak arbitraje-kostuei buruz duten iritzia emango dute laudoan, eta kostu horien barruan sartuko dira arbitroen ordainsariak, arbitraje-perituen ordainsariak halakorik balego, arbitrajearen administrazio-gastuak eta arbitraje-prozeduran sortutako gainerako gastuak eta, egoki izanez gero, alderdien artean sor litezkeen zorren itzulketa, gainerakoek administrazio-



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

eskubideak eta arbitroen ordainsaria ordaindu ez zutelako horietako batek egindako ordainketen ondorioz.

Ez dira kostutzat hartuko alderdiek izendatutako abokatuen, ordezkarien edo perituen gastu eta ordainsariak.

Era berean, alderdi batek alde aurretik errefusatutako kautelazko neurri bat eskatzen badu edo gertaera berriengatik adostutako kautelazko neurrien aldaketa, 19.3. artikulua arabera, arbitroak kostuei buruzko erabakia hartuko dute neurri horien inguruko eskakizuna onartu edo errefusatzean, eta kostuen artean abokatuen, ordezkari eta alderdien perituen gastuak kontutan izango dituzte, fede txarra edo ausarkeriarik ikusten badute.

Alderdi bakoitzak berak eskatuta egindako gastuak ordaindu beharko ditu, eta gastu komunak zati berdinetan, non eta arbitroek ez duten fede txarrik edo ausarkeriarik ikusten horietako batengan, eta hala bada, kostuetan zigortua izango da.

6. Arbitroek Gorteko Idazkaritzaren bitartez jakinaraziko diete laudoa alderdiei, horietako bakoitzari sinatutako ale bat emanaz.

7. Laudoa notariotzan protokolizatu liteke. Alderdietako edozeinek, bere kontura, Gorteko Idazkaritzaren bitartez eskatu ahal izango die arbitroei, jakinarazpena egin aurretik, laudo hori protokolizatua izan dadila.

33. ARTIKULUA. LAUDO ALDERDIEN ADOSTASUNAREKIN.

Arbitroek beren jarduerak egiten dituzten bitartean, alderdiak adostasun batera iristen badira eztabaida horri erabat edo zati batean amaiera emango diona, arbitroek amaitutzat emango dituzte jarduera horiek itundutako puntuei dagokienez, eta bi alderdiek eskatzen badute, eta arbitroek ez badute aurka egiteko arrazoirik ikusten, adostasun hori laudo gisa aurkeztuko dute alderdiek adostutako hitzetan.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Laudo horrek eztabaidaren muinaren inguruan xedatutako beste edozein laudoren eraginkortasun berbera izango du.

34. ARTIKULUA. LAUDOAZUZENDU, ARGITU ETA OSATZEA ETA MUGAK GAINDITZEA.

1. Laudoa jakinarazi eta hurrengo bost egunen barruan, horietako edozeinek, besteari jakinaraziz gero, honakoa eskatu ahal izango die arbitroei:

- a) Kalkulu-akats, kopia-akats, akats tipografiko edo antzeko beste edozein akats zuzentzea.
- b) Laudoaren puntu bat edo zati zehatz bat argitzea.
- c) Laudoa osatzea, egindako eta ebatzi gabeko eskaeren inguruan.
- d) Laudoaren muga-gainditze partziala zuzentzea, hark erabaki behar ez duen gaiaz eman bada edo arbitrajea behar ez duten gaiez.

2. Gainerako alderdiei entzun ondoren, arbitroek, hamar eguneko epean, bai akatsak zuzentzeko eta argitzeko eskaerak, bai osatzeko eskaerak, eta bai mugak gainditzea zuzentzea ere ebatziko dituzte.

3. Laudoa egin eta hurrengo bost egunen barruan, arbitroek ofizioz 1 apartatuko a) letrak aipatzen duen akatsen zuzenketa egin ahal izango dute.

4. Arbitroen ebazpenei 32. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie, laudoa zuzendu, argitu, osatu eta mugak gainditzeari dagokionez.

5. Arbitrajea nazioarte mailakoa denean, aurreko apartatueta ezarritako bost eta hamar egunetako epe horiek hilabete bat eta bikoak izango dira, hurrenez hurren.



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

35. ARTIKULUA. EZEZTATZEA, GAUZA EPAITUA ETA LAUDOA BERRIKUSTEA.

Laudo irmoak epaitutako gauza batenak bezalako ondorioak eragiten ditu eta horren aurrean, ezeztatzea besterik ezingo da eskatu, legearen arabera, eta dagokionean, berrikustea eskatu epai irmoetarako Prozedura Zibilaren urtarilaren 7ko 1/2000 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Arautegi hau indarrean sartu aurretik hasitako prozedurak Gipuzkoako Bazkudearen Arbitraje Arautegiak arautuko ditu aurrerantzean ere, tramitera onartu denean indarrean dagoen horrek.

AMAIERAKO XEDAPENAK

1. Arautegi hau, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzak onetsi ondoren, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.
2. Arautegi hau indarrean sartzen denean, baliorik gabe geratuko da Gipuzkoako Bazkudearen 2011eko abenduaren 19ko Arbitraje Arautegia.